

**EBAZPENA, 2011KO APIRILAREN 7KOA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIA KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, DEI EGITEN DA SUKARRIETAKO ESKOLA-ESPERIMENTAZIOKO ZENTROAN LANPOSTUAK ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Bilbao Bizkaia Kutzak (BBK-k) SUKARRIETAKO ESKOLA-ESPERIMENTAZIOKO ZENTROA eskaini izan diete Bizkaiko ikasle eta irakasleei, ingurune fisiko eta pedagogikoa ahalbidetzeko, naturara eta haren arazoetara hurbiltzeko eta komunikazioa eta bizikidetzaz errazteko.

Astero-astero joaten dira ikasleak zentro horretara, eta ingurumen-hezkuntzarekin zerikusia duten jarduerak egiten dituzte. Horretarako, ingurumenaren alde lan egiten dute ingurumenean bertan murgilduta, inguruak arakatzuz ingurumenari eragiten dioten eragileekin elkarrekintzan. Hori guztia egituratzeko, zenbait ikerketa-proiektu edo –gai baliatzen dituzte, hala nola, Lurra, Ura, Itsasadarra, Planeta Berdea eta Basoa, baita zentroko lana osatzen duten hainbat lantegi ere.

Bete beharreko eginkizunak zentroko gobernu-batzordeak urtero onartzen duen lan-plangintzaren arabera izango dira, eta bertako zuzendaritza pedagogikoak zehaztuko ditu astero.

Lanpostuak betetzeko aparteko eratzat taxutu dute zerbitzu-eginkizuna Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 54. artikulua —azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatu zuen lege hori— eta uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 12. artikulua (Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena arautzeko Dekretua).

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa ezartzen duen irailaren 14eko 233/2010 Dekretuaren 10. artikulua xedatutakoa kontuan izanik, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Deialdi honen helburua da Sukarrietako Esperimentazio-zentroko lanpostu hauek zerbitzu eginkizunetan betetzea :

- Irakasleen 2lanpostu, 2. HEkoak.
- Bigarren Hezkuntzako irakasleen lanpostu bat, 2. HEkoa

Bigarrena.- Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen karrerako irakasleek eta lan-legepeko irakasleek, eskatzen duten lanpostuaren arabera.

Halaber, bitarteko funtzionarioek ere parte hartzea izango dute. Dena dela, karrerako funtzionarioek eta praktiketako funtzionarioek izango dute lehentasuna.

Hirugarrena.- Aukeratuak izateko, izangaiek bigarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta eduki beharko dute, eta elkarrizketa batean, gutxienez, 5 puntu lortu. Elkarrizketa horretan, gehienez ere, 10 puntu emango dira, eta baldintzat eskatzen diren 5 puntu horiek baino gehiago lortuz gero, hortik gorakoak merituz joko dira.



Laugarrena.- Deitzen den zerbitzu-eginkizun honetako izangaiek eredu-eskabidea bete eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileria Kudeatzeko zuzendariari zuzenduko diote. Eskabideok eta alegatutako merezimenduen egiaztagiriak aurkezteko epea **2011eko apirilaren 18ra arte (egun hori barne)** izango da. Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan. Bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatuak) bere 38.4 artikuluan aipatutako edozein erregistrotan ere egin dezakete eskabide hori.

Bosgarrena.- Langileria Kudeatzeko zuzendariak ebatziko ditu zerbitzu-eginkizunak, honako kide hauek izango dituen batzordeak proposatuta:

- ▶ Hezkuntzako lurralde-ordezkarria edo haren ordezkaria.
- ▶ Bizkaiko Lurraldeko Berrikuntza Pedagogikorako zuzendaria edo haren ordezkaria.
- ▶ Bizkaiko Hezkuntza Ikuskaritzako ikuskari nagusia edo haren ordezkaria.
- ▶ Eskola-esperimentazioko Zentroko zuzendari pedagogikoa.
- ▶ BBK-ko gizarte-ekintzetako ordezkari bat.
- ▶ Langileria Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari arituko dena.

Era berean, irakaskuntzan ordezkapen nahikoa duen sindikatu bakoitzeko ordezkari bana egongo da Batzordean.

Seigarrena.- Deialdi honetako I. Eranskinean argitaratutako baremoaren arabera neurtuko dira izangaien merezimenduak.

Zazpigarrena.- Deialdiak ezarritako baldintzak betetzen dituzten izangaiek elkarrizketa egiteko deituko dituzte, eta elkarrizketa horretara sindikatuetakoa ordezkariak ere joan daitezke.

Zortzigarrena.- Elkarrizketa egin ondoren, deialdiaren behin-behineko baremazioa jendaurrean jarriko da Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako iragarki-oholetan. Interesatuiek hiru egun balioduneko epea izango dute ebazpen horren aurkako erreklamazioak aurkezteko, ebazpena iragarki-oholetan argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Bederatzigarrena.- Erreklamazio horiek aztertu ondoren, hautaketa-batzordeak deialdi honen ebazpen-proposamena bidaliko dio Langileria Kudeatzeko zuzendariari, eta horrekin batera, behin betiko akta edo aktak, izangai bakoitzari emandako balorazioak eta hautatutako izangaiek adieraziz.

Langileria Kudeatzeko zuzendariak zerbitzu-eginkizunei buruzko behin betiko ebazpena emango du, eta Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako iragarki-oholetan eta Saileko web orrian argitaratuko da.

Behin betiko ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena iragarki-oholetan argitaratzen denetik aurrera.

Hamargarrena.- Hautatutako karrerako funtzionarioei zerbitzu-eginkizunak emango zaizkie aipatu lanpostua 2011/2012 ikasturtean betetzeko.

Praktiketako funtzionario izangaien aukeraketa praktika-epea gainditzearen eta 2011-2012 ikasturtean karrerako funtzionario izandatzearen baitan egongo da.



Era berean, aukeratuta gerta daitekeen bitarteko funtzionarioa lanpostu horretan 2011-2012 ikasturtean zehar izendatua izango da.

Hamaikagarrena.- Hautatutako izangaiek zentroan bazkalduko dute, eta, gainerako irakasleekin batera, umeak zainduko dituzte umeok jantokian dauden bitartean.

Hamabigarrena.- Hautatutako izangaiek bere kidegoko ordainsariak jasoko dituzte, eta astean 35 orduko jardunaldia izango dute, Zentroko beharrezan moldatutako ordutegi malguaz. Era berean, aipatutako irakasleek lanaldi osoa izango dute ekainean eta irailean eta uztailean eta abuztuan hartuko dituzte oporrak.

Hamahirugarrena.- Zerbitzu-eginkizunak esleituta dituzten irakasleak praktiketako funtzionario izendatzen badituzte, zerbitzu-eginkizuna galduko dute. Zerbitzu-eginkizuna bakar-bakarrik mantenduko da praktiketako espezialitatea bat badator zerbitzu-eginkizunaren lanpostuaren espezialitatearekin.

Hamalauugarrena.- Eskatzaileek emandako datu pertsonal guztiak fitxategi automatizatu batera sartuko dira deialdi hau kudeatzeko. Langileria Kudeatzeko Zuzendaritza da fitxategi horren erantzule, eta beragana jo beharko da datuok ikusi, zuzendu edo ezabatzeke nahiz aurka egiteko eskubideaz baliatzeko (Donostia-San Sebastián kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz).

Sinatzaileak berriaz baimena ematen du bere datu pertsonalak deialdiaren oinarrietan adierazitako moduan eta helburuaz lantzeko; era berean, deialdiaren izapideak betetzeko, baimena ematen du datuok argitara emateko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko web orrian (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net) eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lurralde-ordezkaritzetako iragarki tauletan.

ERREKURTSOAK

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutakoaren) 114. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gorako errekurtsua jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 7a.

LANGILERIA KUDEATZEKO ZUZENDARIA
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA



I. ERANSKINA

I. I. BAREMAZIO OBJEKTIBOA.

1. **Irakaskuntza jarduera:** 5 puntura arte, gehienez.

a. Ikastetxean bertan egindako lana	gehienez	2
puntu		
Ikasturte oso bakoitzeko	1	
Hilabetea edo 15 egun baino gehiagoko lanaldi bakoitzeko	0,20	
b. Beste ikastetxeetan egindako lana	gehienez	3
puntu		
Ikasturte oso bakoitzeko	0.50	
Hilabetea edo 15 egun baino gehiagoko lanaldi bakoitzeko	0,10	
2. **Eskatzen den lanpostuarekin zerikusia duten ikastaroak** (5 puntura arte, gehienez):
 - a) Ingurumen-heziketa eta konstruktibismoa: ikastaroko 10 ordu bakoitzeko 0,20 puntu, gehienez 42 puntura arte.
 - b) Expr. Adierazpen plastikoa, ikus-entzunezkoak, informatika, teknologia, talde-dinamika, proiektuen metodologia, globalizazioa... : ikastaroko 10 orduko 0,10 puntu, gehienez puntu batera arte.
3. **Lanbide-esperientzia**, eskatzen den lanpostuarekin zerikusia duena. Gehienez ere, 9 puntu.
 - a) **Mintegietan parte hartzea** (Hezkuntza Sailaren deialdi ofizialetan), baldin eta eskatzen den lanpostuarekin zerikusia duten gaiak badira. 0, 5 puntu mintegiko 3 puntura arte, gehienez.
 - b) **Mintegietan parte hartzea** (Hezkuntza Sailaren deialdi ofizialetan), baldin eta eskatzen den lanpostuarekin zerikusi zuzenik ez badute. 0,25 puntu mintegiko puntu batera arte, gehienez.
 - c) **Hezkuntza-berrikuntzako esperientzia ofizialetan parte hartzea:** 0,5 puntu esperientzia bakoitzeko eta, gehienez, 1 puntu.
 - d) Eskatzen den lanpostuarekin zerikusia duten **argitalpenak**. Gehienez ere, 2 puntu.
 - e) Ikastaroak ematea eta ponentziak aurkeztea: 0,5 puntu ikastaroko 10 ordu bakoitzeko eta 0,5 puntu ponentzia bakoitzeko, 2 puntura arte gehienez.
4. **Esperientzia** izatea Aisialdiko Hezkuntzaren eta animazio soziokulturalaren alorrean Gehienez ere, 1 puntu.

II. ELKARRIZKETA. Gehinez ere, 5 puntu.



**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA**

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordetza
Langileriaren Kudeaketa zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal